

{ profila }

HUMZA YOUSAF

Eskozia askatasunerantz gidatuko duen «etorkin» musulmana

Humza Yousaf du ize-na, bigarren belau-naldiko etorkina da eta Eskoziako lehen ministro eta Eskoziako Alderdi Na-zionaleko (SNP) buruzagi berria da, kargua utzi berri duen Nicola Sturgeo-nen ordez.

Ama jatorriz pakistandarra zen ken-yarra eta aita pakistandarra ditu. Biak 1960an iritsi ziren Erresuma Batura.

37 urte dituen politikaria aitzindaria da zentzu askotan, Eskoziako politika-gintzan eta haratago. Eskoziak inoiz izan duen lehen ministro musulmana izan da 2012tik. Garraio eta Justizia mi-nisterioen ardura izan zuen eta azken urteetan Osasun ministroa izan da.

SNPk hauteskunde primarioetan be-re garaipena iragarri eta gero, eta biha-ramunean Holyroodeko Parlamentua-ren babesa eskuratu ondoren, Arabiar Penintsulan jatorria duen erlijioaren jarraitzaile batek gidatuko du Europa-ko iparraldeko herrialdearen etorkizu-na. Historian ezagutu den lehen minis-tro gazteena da, gainera.

Eta ez du eginkizun makala, Eskozia independentziantz abiarazteko ardu-ra izango baitu. Paradoxa litzateke Erresuma Batuko alderdi bateko lehen agintari musulman batek Erresuma Batuaren amaiera iragartzea.

Musulmana eta jatorriz pakistanda-rra. Izan ere, urdueraz zin egin zuen 2011n Eskoziako Parlamentuko legebil-tzarkide hautatu zutenean.

Irabazi ondoren, duela 60 urte Pakis-tandik etorritako aitona-amonak omendu zituen. «Ametsik zoroenetan ere ez zuten imajinatuko biloba Esko-ziako hurrengo lehen ministro bilaka-tuko zenik».

ERASO ETA IRUZKINAK

Glasgow hirian jaioa eta hazia, Humza Yousafek eskola pribatu batean hasi zi-tuen ikasketak, eta ondoren, jaioterri-ko unibertsitatean zientzia politikoak ikasi zituen eta apelazio zentro batean



Humza Yousaf irabazlea, alboan Ash Regan eta Kate Forbes dituela.
Andy BUCHANAN | AFP

lan egin zuen, SNPko orduko buru eta Eskoziako ministro nagusi izan zen Alex Salmond-en laguntzaile bihurtu aurretik.

Politikagintzan hasi eta berehala, eraso eta iruzkin arrazistak jasan izana salatu zuen; batez ere, 2001eko iraila-ren 11ko erasoan ondoren.

«Sarean eraso ugari jasan ditut, eta zoritxarrez, batzuetan aurrez aurre ere bai», gogorarazi du.

2021ean, Nadia El-Nakla bigarren emaztearekin batera, salaketa jarri zion beren alaba hartzeari uko egin zion haurtzaindegia. Zentroak ukatu egin zituen akusazioak, baina ikuskari-tzak funtsezkotzat jo zuen salaketa. Bi-koteak alaba haurtzaindegitik atera zuen.

Bere esperientziak eta jasandakoak gutxiengo guztien eskubideak defen-datzen eramango dutela ziurtatu du Eskoziako agintari berriak, tartean ho-mosexualenak eta transgeneroenak. Bere fedearen arabera legerik ez duela egingo agindu du.

Nahiz eta, batek baino gehiagok go-gorarazi duenez, 2014. urtean Edinbur-goko Parlamentuan, eta agintari mu-sulmanen presiopean, sexu bereko bikoteen ezkontza legeztatzeke bozke-ta bat saihezi zuen, Justizia ministro zela.

AURKARIA, EBANJELISTA ATZERA KOIA

Primarietarako kanpaina zehar, bere burua defendatu zuen, egun hartan beste konpromiso batzuk zituela esa-nez, eta pilota SNPko presidentetzara-ko bere aurkari nagusiari itzuli zion, Kate Forbesi. Horrek, Eskoziako Lur Ga-raietan jaioak eta ama hizkuntza gae-liarra duenak, aho betearekin aldarri-katu ditu gizarte arloko ideia ultrakontserbadoreak, abortatzeko es-kubidearen eta homosexual eta trans-generoen aurka, eliza ebanjeliko bate-ko kide delako. Eskoziako Eliza Askeko kide da Forbes; irabazi izan balu, berak ere profila merezi izango zuen. Hala ere, nahiko estu gailendu zitzaion You-saf gaur egungo Finantza ministroari,



Humza Yousaf primarioak irabazi ondoren.
Andy BUCHANAN | AFP

%52-%48 tarte urriarekin. SNP alderdia 1979an sortu zenetik bosgarren agintaria da Yousaf.

Duela hilabete ezustean kargua utzi zuen Nicola Sturgeonengandik oso hurbil egonik, jarraipenaren hautagai-tzat jo dute. Errepublikano sutsua, bere aurrekariaren orria atzean uzteko prest dagoela erakutsi beharko du. Hain justu, Eskoziako osasun sistema –azken urteetan ministro gisa zuen tutoretza- eta hezkuntza krisian daudenean.

Gobernuan Yousafek egindako lanak kritika gogorak jaso ditu. Pandemiararen ostean, Osasun sailburu zela, bere kudeaketa oso kritikatu izan zen aurkarien eta oposizioaren aldetik eta bere ahulgune bilakatu daiteke. Hain zuzen, herritarren %62k larrialdi medikuen zerbitzuaren inguruan egin duen kudeaketa errefusatzen du, eta %40k ez du aginterako «gai» ikus-ten, YouGov etxeak egindako inkesta ren arabera.

Gauzak horrela, bere aurrekoarekin zubiak ez dituela moztuko eta berare-

kin harreman estuan eta aholku eske jarraituko duela adierazi du, baina bere taldeak gobernantza eta esparru murrizak gairidituko dituela hitze-man du.

Dena den, Humza Yousafek gizarte kontuetan Sturgeonek bultzatu di-tuen jarrera aurrerakoiekin bat egi-ten du eta ekonomia arloan erę ezke-rrean kokatu daiteke; adibidez, aberatsenen zergak igotzearen alde koa da. Gizarte arloan ere gurasoak izan berri direnei lanera itzultzeko dirulaguntzak mantendu eta gehi-tzearen alde ere azaldu da. SNP alder-dia azken hauteskundeetan hainbes-te saritu duten politiken alde. Beraz, ez da inola ere harritzekoa Sturgeon pozik azaldu izana bere politikak ja-rraipena izango duelako. «Oso harro nago bere hautaketarekin eta agintari nabaria izango da», adierazi du Stur-geonek.

Primarioetara aurkeztu diren hiru hautagaietatik, bera izan da Eskoziako “Trans Legeari” Londresek ezarri dion

IBILBIDEA Glasgow hirian jaioa, 37 urte ditu eta gurasoak pakistandarrak dira, etorkinak. Ibilbide oparoa izan du politikagintzan, beti SNP alderdi suberanistaren barruan.

betoaren aurka borrokatuko duela konpromisoa berretsi duen bakarra.

«Eskoziarentzat independentzia lor-tuko duen belaunaldia izango da gu-rea», aldarrikatu du Yousafek. «Esko-ziako herriak independentzia behar du orain, inoiz baino gehiago», gaineratu du. Bere ustez, denbora luzeegia galdu da Erresuma Batuko gobernuak egin-dako porrotak azpimarratzen, eta ez da nahikoa egin Eskozia independente ba-terako ikuspegi bat sortzeko. Autode-terminazioaren aldeko herri mugi-mendu bat abiaraziko zuela hitzeman zuen astelehenean.

Hala ere, hurrengo hauteskundeak independentziaren inguruko errefe-renduma balira bezala aurkezteko Sturgeonen asmotik aldendu egin da. Bere asmoa gehiengo zabalak lortzeko lanean jarraitzea omen da, %50aren in-guruko babesarekin horrelako pausoa ematea «ez delako nahiko ona».

Londresek Eskoziari bigarren errefe-renduma egiteko baimena ukatu zio-netik, eta batez ere Auzitegi Gorenak

debeku hori onartu zuenetik, behera egin du independentziaren aldeko ba-besak (%50etik %46ra). “Trans Legea-ren” inguruko zalapartak ere izan du eragina; batez ere, onartu eta berehala, sexuz aldatu zen bortxatzaile bat ema-kumeen presondegi batera eraman zu-telako eta horrek ika-mika eragin zue-lako.

Hala eta guztiz ere, jarrera aurrera-koenei eusteko konpromisoa du You-safek, nahiz eta, edo agian horrexega-tik, fede gizona izan (Ramadaneko baraualdia bete du). «Humzaren ka-suan, fedea ez da Eskozia aurrerakoi bat eratzeko oztopoa. Aitzitik, berari ez zaio axola norberaren joera sexuala, genero kontua edo azalaren kolorea. ‘Onartuak’ baino gehiago, ‘goratuak’ izango dira», ziurtatu du Angus Rober-tson Konstituzio ministroak.

SUNAKEN NEMESISA

«Beti goraipatu beharko genituzkeen gure herrialdeari hainbeste lagundu eta laguntzen dioten etorkinak», alda-rrikatu du Yousafek, gobernu britainia-rrak Erresuma Batuan asilo-baldintzak gogortzeko duen asmoa kritikatzeko.

Rishi Sunak lehen ministro britainia-rra ere etorkinen semea da, eta bere gurasoek Punjaben zuten jatorria, Jou-safenek bezala. Hala ere, Sunakenak hinduak ziren (Kenya eta Tanzaniatik etorritakoak) eta eskoziarrarenak, mu-sulmanak (India zatitu zenean, pakis-tandarrak). Dena dela, kontserbado-reen agintariak ez du inolako lotsarik Afrikatik txalupetan datozen etorkinak Ruandara bueltan bidaltzeko. Yousaf eta Sunak ez dira etorkinen familieta-tik sortutako agintari politiko baka-rrak. Anas Sarwar Eskoziako laboristen burua ere Pakistango familia batetik dator, eta Sadiq Khan Londresko alkate laboristaren gurasoek Erresuma Batu-ra migratu zuten Pakistandik 60ko ha-markadan.